



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

VII. legegintzaldia

Iruña, 2009ko apirilaren 2a

26. ZK.

### A U R K I B I D E A

#### B SAILA:

##### **Foru lege proposamenak:**

- Foru Lege proposamena, Nafarroako Arartekoaren eskumenak handitzen dituen, adingabearen defenda-tzailea ere izan dadin. Osoko Bilkurak aintzat hartua (3. or.).
- Foru Lege proposamena, Foru Komunitateko zergadunek gizarte-intereseko beste xede batzuetarako bide-ratzen duten tributuen % 0,7 arautzekoa. Osoko Bilkurak aintzat hartua (3. or.).
- Foru Lege proposamena, Nafarroako Poliziei buruzko martxoaren 23ko 8/2007 Foru Legea hein batean aldatzekoa. Osoko Bilkurak aintzat hartua (3. or.).

#### E SAILA:

##### **Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:**

- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da buru osasunarekin lotutako zenbait jarduketa gara ditzan. Osoko Bilkurak onetsia (4. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoan agertzen diren eta transferitu gabe dauden eskumenak lor ditzan, Espainiako Gobernuarekiko elkarriketaren eta hitzarmenaren bidez. Osoko Bilkurak onetsia (5. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da adingabeak adoptatu edo hartzeko prozesuak hobetu ditzan. Osoko Bilkurak onetsia (5. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da lehentasunez jar ditzan abian eta Osasunari buruzko Plan Estrategikoan sar ditzan Nafarroako Odol-transfusioen eta Zelulen eta Ehunen Zentroa ize-neko fiskalizazio txostenean Comptos Ganberak eginiko gomendioak. Osoko Bilkurak onetsia (6. or.).
- Erabakia. Horren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen da arau dezan aisiako lokaletako atezainen jar-duna. Osoko Bilkurak onetsia (6. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da jarduketa protokolo bat sor dezan, Osasunbi-dea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko langileek erasoak jasaten dituztenerako. Osoko Bilkurak onetsia (7. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da gure erkidegoan babesa eman diezaien Espainiako Gobernuak krisi ekonomikoari aurre egite aldera sustatutako neurriei. Osoko Bilkurak onetsia (7. or.).

- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da jardun-protokolo bat presta dezan, ikastetxeen egitura-osagarrien akatsen aurrean erabiltzeko. Osoko Bilkurak onetsia (8. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da emakumeen genitalen ebaketei aurrea hartu eta errotik desagerrarazteko neurri berariazkoak ziurta ditzan. Osoko Bilkurak onetsia (9. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da bazterketarik gabeko elkarriketa politiko eta sindikala abiaraz dezan, krisi ekonomikoari aurre egiteko politikei ekiteko. Osoko Bilkurak bazter utzia (10. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Irunberriko Udala eta Nafarroako Gobernua premiatzen dira legezkotasuna bete dezaten, Acciona-Windpower, S.A. enpresa jartzeko lursailak trukatzeari dagokionez. Osoko Bilkurak bazter utzia (10. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da ez ditzan egin “Reyno de Navarra Arena” izeneko kiroldegiaren obrak, eta obra horretarako aurreikusitako baliabideak gizarte-inbertsiora bidera ditzan. Osoko Bilkurak bazter utzia (10. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Uxueko santutegi-gotorlekura bisita gidatuak egiteko zerbitzu bat abiaraz dezan, obrak egiten diren bitartean. Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Batzordeak onetsia (11. or.).

---

**B saila:**  
**FORU LEGE PROPOSAMENAK**

---

**Foru Lege proposamena, Nafarroako Arartekoaren eskumenak handitzen dituen, adingabearen defendatzailea ere izan dadin.**

*OSOKO BILKURAK AINTZAT HARTUA*

Legebiltzarrak, 2009ko martxoaren 26an egindako Osoko Bilkuran, Nafarroako Arartekoaren eskumenak handitzen dituen Foru Lege proposamena, adingabearen defendatzailea ere izan dadin, aintzat hartzea erabaki zuen. Proposamen hori Socialistas del Parlamento de Navarra parla-

mentu-taldeak aurkeztu zuen eta 2009ko otsailaren 10eko 8. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2009ko martxoaren 30ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

---

**Foru Lege proposamena, Foru Komunitateko zergadunek gizarte-intereseko beste xede batzuetarako bideratzen duten tributuen % 0,7 arautzea.**

*OSOKO BILKURAK AINTZAT HARTUA*

Legebiltzarrak, 2009ko martxoaren 26an egindako Osoko Bilkuran, Foru Komunitateko zergadunek gizarte-intereseko beste xede batzuetarako bideratzen duten tributuen % 0,7 arautzeko Foru Lege proposamena aintzat hartzea erabaki zuen. Proposamen hori Socialistas del Parlamento de

Navarra parlamentu-taldeak aurkeztu zuen eta 2009ko otsailaren 17ko 9. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2009ko martxoaren 30ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

---

**Foru Lege proposamena, Nafarroako Poliziei buruzko martxoaren 23ko 8/2007 Foru Legea hein batean aldatzekoa.**

*OSOKO BILKURAK AINTZAT HARTUA*

Legebiltzarrak, 2009ko martxoaren 26an egindako Osoko Bilkuran, Nafarroako Poliziei buruzko martxoaren 23ko 8/2007 Foru Legea hein batean aldatzeko Foru Lege proposamena aintzat hartzea erabaki zuen. Proposamen hori Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkeztu zuen eta 2009ko otsai-

laren 17ko 9. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2009ko martxoaren 30ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

---

**E saila:**  
**JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK**

---

**Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da buru osasunarekin lotutako zenbait jarduketa gara ditzan.**

*OSOKO BILKURAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2009ko martxoaren 26an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da buru osasunarekin lotutako zenbait jarduketa gara ditzan."

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2009ko martxoaren 30ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

**Erabakia. Horren bidez,  
Nafarroako Gobernua premiatzen da  
buru osasunarekin lotutako zenbait  
jarduketa gara ditzan.**

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du buru-osasunarekin zerikusia duten zenbait ekintza abian jar ditzan, hala nola:

1. Buru-osasunaren Plan Integrala abian jartzea. Plan horrek ondokoak jasoko ditu:

a) Haur eta Gazteei Laguntzeko Plana gauzatea eta horretarako behar den dirua jartzea.

b) "San Frantzisko Xabierkoa" Zentro Psikogeriatrikoaren Plan Zuzendaria gauzatea eta horretarako behar den dirua jartzea.

c) Nafarroako buru-osasunerako sareko baliabideak berrantolatzea eta erabakitzeko gaitasuna duen entitate bakar baten mende jartzea, dauden baliabideak hobeto koordinatze eta optimizatze aldera.

d) Batzorde bat sortzea, Buru-osasunaren Plan Integrala prestatzeko. Parlamentu-taldeei espresuki jakinaraziko zaie nortzuk izanen diren batzorde horretako kide. Dena den, batzorde horretan egonen dira gutxienez:

- Buru-osasunari buruzko foroa.
- ANASAPS.

• Inplikazio-maila bat edo beste duten arloetako elkarte profesionalak: haur eta gazteen arloa, toxikomaniak, ospitaleen arloa, oinarrizko osasun laguntza, gizarte-baliabideekin zerikusia duten elkarteak eta abar.

e) Buru-osasunaren Plan Integrala garaiz igorriko da Nafarroako Parlamentura, parlamentu-taldeen zuzenketak aurkeztu eta, bidezkoa bada, onetsi ahal izateko, eta plana hurrengo aurrekontualdian gauzatu ahal izateko.

2. Plan Soziosanitarioa berrikustea eta buru-osasunaren arloan inkardinatzea.

**Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoan agertzen diren eta transferitu gabe dauden eskumenak lor ditzan, Espainiako Gobernuarekiko elkarrizketaren eta hitzarmenaren bidez.**

*OSOKO BILKURAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2009ko martxoaren 26an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoan agertzen diren eta transferitu gabe dauden eskumenak lor ditzan, Espainiako Gobernuarekiko elkarrizketaren eta hitzarmenaren bidez."

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2009ko martxoaren 30ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

**Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoan agertzen diren eta transferitu gabe dauden eskumenak lor ditzan, Espainiako Gobernuarekiko elkarrizketaren eta hitzarmenaren bidez.**

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoan agertzen diren eta transferitu gabe dauden eskumenak lor ditzan, Espainiako Gobernuarekiko elkarrizketaren eta hitzarmenaren bidez, betiere Nafarroako gizartearen aurrerabidean eragina izanen badute.

**Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da adingabeak adoptatu edo hartzeko prozesuak hobetu ditzan.**

*OSOKO BILKURAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2009ko martxoaren 26an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da adingabeak adoptatu edo/eta hartzeko prozesuak hobetu ditzan"

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2009ko martxoaren 30ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

**Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da adingabeak adoptatu edo hartzeko prozesuak hobetu ditzan.**

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du adingabeak adoptatu edo hartzeko prozesuak hobetu ditzan, eta, lehenbizi, familia adoptatzaileak edo hartzaileak azter ditzan eta, ondoren, familia horiek eta arlo horretan gautzen diren ekimen partikular edo instituzionalak babestu eta lagundu ditzan.

**Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da lehentasunez jar ditzan abian eta Osasunari buruzko Plan Estrategikoan sar ditzan Nafarroako Odol-transfusioen eta Zelulen eta Ehunen Zentroa izeneko fiskalizazio txostenean Comptos Ganberak eginiko gomendioak.**

*OSOKO BILKURAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2009ko martxoaren 26an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da lehentasunez jar ditzan abian eta Osasunari buruzko Plan Estrategikoan sar ditzan Nafarroako Odol-transfusioen eta Zelulen eta Ehunen Zentroa izeneko fiskalizazio txostenean Comptos Ganberak eginiko gomendioak".

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2009ko martxoaren 30ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

**Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da lehentasunez jar ditzan abian eta Osasunari buruzko Plan Estrategikoan sar ditzan Nafarroako Odol-transfusioen eta Zelulen eta Ehunen Zentroa izeneko fiskalizazio txostenean Comptos Ganberak eginiko gomendioak.**

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Nafarroako Odol-transfusioen eta Zelulen eta Ehunen Zentroa izeneko fiskalizazio txosteneko IV. atalean –Iruzkin, ondorio eta gomendio orokorrak– Odol-transfusioen Zentroko plangintzari, programazioari, antolamenduari eta langileen egoerari buruz Comptos Ganberak eginiko gomendioak abian jar ditzan, lehentasunez eta laster Legebiltzarrean aurkeztu beharreko Osasun Plan Estrategikoarekin batera.

---

**Erabakia. Horren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen da arau dezan aisiako lokaletako atezainen jarduna.**

*OSOKO BILKURAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2009ko martxoaren 26an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen da arau dezan aisiako lokaletako atezainen jarduna". Horren jatorria da Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak aurkeztutako mozio bat, 2008ko abenduaren 10eko 108. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratua.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2009ko martxoaren 30ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

**Erabakia. Horren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen da arau dezan aisiako lokaletako atezainen jarduna.**

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du 2009an arau dezan, foru lege edo foru dekretu baten bidez, eguneko zein gaueko aisiako lokaletako atezainen jarduna eta, horretarako, kontuan har ditzan legeak ukituko dituen eragile sozial eta ekonomikoak.

**Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da jarduketa protokolo bat sor dezan, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko langileek erasoak jasaten dituztenerako.**

*OSOKO BILKURAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2009ko martxoaren 27an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da jarduketa protokolo bat sor dezan, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko langileek erasoak jasaten dituztenerako".

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2009ko martxoaren 30ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

**Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da jarduketa protokolo bat sor dezan, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko langileek erasoak jasaten dituztenerako.**

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da jarduketa protokolo bat sor dezan, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko langileek erasoak jasaten dituztenerako

**Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da gure erkidegoan babesa eman diezaien Espainiako Gobernuak krisi ekonomikoari aurre egite aldera sustatutako neurriei.**

*OSOKO BILKURAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2009ko martxoaren 27an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da gure erkidegoan babesa eman diezaien Espainiako Gobernuak krisi ekonomikoari aurre egite aldera sustatutako neurriei".

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2009ko martxoaren 30ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

**Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da gure erkidegoan babesa eman diezaien Espainiako Gobernuak krisi ekonomikoari aurre egite aldera sustatutako neurriei.**

1. Nafarroako Parlamentuak ongi deritzo Espainiako Ekonomia eta Enplegua Suspertzeko Planak Foru Komunitateko ekonomian izanen duen eraginari.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du gure erkidegoan jarrai dezala babesten Espainiako Gobernuak krisi ekonomikoari aurre egiteko bultzatu dituen neurriak.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Espainiako Ekonomia eta Enplegua Suspertzeko Plana indartzeko eta osatzeko neurriak bultzatu ditzan, eta erkidegoko baliabideak jar ditzan autonomia pertsonala sustatzeari eta mendetasun-egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzko abenduaren 14ko 39/2006 Legeak eskualdeak garatzeko egiten duen ahale-

gina indartzeko, gizartean baztertze-arriskuan dauden pertsoneri edo taldeei laguntza ekonomikoa emateko eta Espainiako Gobernuak funts osagarri hornitu dituen sektore berariazkoak indartzeko, hala nola turismo soziala, I+G+B, etxebizitzaren birgaitzea edota ingurumenarekin loturiko jarduerak.

4. Nafarroako Parlamentuak bere babesaren aurrerakuntza erabiltzeko, bere babesaren aurrerakuntza erabiltzeko, beharrezkoak diren ekimenak abian jar ditzan, familiei eta enpresei laguntzeko, enpleguaren sorkuntza bultzatzeko eta ekoizpen-eredua modernizatzen, krisialdi ekonomikoa gainditze aldera.

## **Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da jardun-protokolo bat presta dezan, ikastetxeen egitura-osagarrien akatsen aurrean erabiltzeko.**

### *OSOKO BILKURAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2009ko martxoaren 27an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da jardun-protokolo bat presta dezan, ikastetxeen egitura-osagarrien akatsen aurrean erabiltzeko." Horren jatorria da Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkeztutako mozio bat, 2009ko urtarrilaren 15eko 1. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratua.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2009ko martxoaren 30ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

## **Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da jardun-protokolo bat presta dezan, ikastetxeen egitura-osagarrien akatsen aurrean erabiltzeko.**

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du:

1.- Protokolo bat diseina dezan kasuan kasuko administrazioek, tokikoek edo Foru Administrazioak, lehenbailehen jardun dezaten ikastetxeen egitura-osagarrien akatsak gertatzen direnean, dela arkitektura-arazoengatik, dela kokatuta dauden lurraren ondoriozko arazoengatik, edota instalazioen hondatzearekin zerikusia duten arazoengatik, non eta horiek ez diren sortu eraikinaren mantentze eskasa dela-eta.

2.- Protokolo horretan zehaztuko dira:

- Ikastetxearen eskaerari erantzuteko epea.
- Diagnostika egiteko epea.
- Eraikinaren egoerari buruzko txosten bat prestatzea eta bertan jasotzea eskola-komunitatearen segurtasunarentzat izan daitezkeen arriskuak.
- Jardueraren zenbatespen ekonomikoa egitea.

Jarduteko irizpideak eta epeak, txostenean jasotakoaren arabera.



## **Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da emakumeen genitalen ebaketei aurrea hartu eta errotik desagerrarazteko neurri berariazkoak ziurta ditzan.**

### *OSOKO BILKURAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2009ko martxoaren 27an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da emakumeen genitalen ebaketei aurrea hartu eta errotik desagerrarazteko neurri berariazkoak ziurta ditzan".

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2009ko martxoaren 30ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

## **Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da emakumeen genitalen ebaketei aurrea hartu eta errotik desagerrarazteko neurri berariazkoak ziurta ditzan.**

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du emakumeen genitalen ebaketei aurrea hartu eta errotik desagerrarazteko neurri berariazkoak ziurta ditzan. Bereziki garrantzitsuak dira praktika horiek ohikoak diren herrialdeetako emakumeentzat bizi baldintza egokiak sortzea helburu duten elkartasun- eta lankidetzakintzak,

bai eta praktika horiek gure herrialdean dituzten ondorio penalei buruzko informazio nahikoa ere.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du familien arteko bitartekaritza komunitarioa jarrai dezala sustatzen, genitalen ebaketa arriskurik izanez gero. Kasu horietan ahalegina egin behar da negoziazioan pertsona adituek parte har dezaten, bai eta praktika horien eragina jasaten duten komunitateetako pertsona ere; halaber, ziurtatu behar da oinarrizko laguntzaren arloko eragile sozialen jarduna.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du ebakuntzak egiteko osasun bitartekoak izan ditzan osasun sistema publikoan aurre egiteko ebaketaren ondorioak lehengoratu nahi dituzten emakumeen eskaerari, bai eta laguntza psikologikoa, familiarra eta komunitarioa emateko bitartekoak ere. Adingabeen osasuna arriskuan dagoen kasuetan, osasun arloko langileek eskura izanen dituzte ebakuntza egiteko beharrezkoak diren bitartekoak.

4. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du sei hilabeteko epean aurkez dezan ebaketa genitala jasan duten emakumeei laguntza medikoa, soziala eta psikologikoa emateko jarduera protokolo bat, kontuan hartuta osasun-, hezkuntza- eta gizarte-esparrua, baita esparru judiziala ere.

**Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da bazterketarik gabeko elkarrizketa politiko eta sindikala abiaraz dezan, krisi ekonomikoari aurre egiteko politikei ekiteko.**

*OSOKO BILKURAK BAZTER UTZIA*

Nafarroa Bai parlamentu taldeak ondoko mozioa aurkeztu zuen: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da bazterketarik gabeko elkarrizketa politiko eta sindikala abiaraz dezan, krisi ekonomikoari aurre egiteko politikei ekiteko."

Legebiltzarrak 2009ko martxoaren 26an egin-dako Osoko Bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako

mozioa baztertzea. Mozio hori 2009ko martxoaren 13ko 20. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2009ko martxoaren 30ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

**Mozioa. Horren bidez, Irunberriko Udala eta Nafarroako Gobernua premiatzen dira legezkotasuna bete dezaten, Acciona-Windpower, S.A. enpresa jartzeko lursailak trukatzeari dagokionez.**

*OSOKO BILKURAK BAZTER UTZIA*

Nafarroa Bai parlamentu taldeak ondoko mozioa aurkeztu zuen: "Mozioa. Horren bidez, Irunberriko Udala eta Nafarroako Gobernua premiatzen dira legezkotasuna bete dezaten, Acciona-Windpower, S.A. enpresa jartzeko lursailak trukatzeari dagokionez."

Legebiltzarrak 2009ko martxoaren 27an egin-

dako Osoko Bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioa baztertzea. Mozio hori 2008ko abenduaren 19ko 110. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2009ko martxoaren 30ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

**Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da ez ditzan egin "Reyno de Navarra Arena" izeneko kiroldegiaren obrak, eta obra horretarako aurreikusitako baliabideak gizarte-inbertsiora biderra ditzan.**

*OSOKO BILKURAK BAZTER UTZIA*

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteak ondoko mozioa aurkeztu zuen: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da ez ditzan egin "Reyno de Navarra Arena" izeneko kiroldegiaren obrak, eta obra horretarako aurreikusitako baliabideak gizarte-inbertsiora biderra ditzan."

Legebiltzarrak 2009ko martxoaren 27an egin-dako Osoko Bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioa baztertzea. Mozio hori 2008ko abenduaren 19ko 110. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2009ko martxoaren 30ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

**Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Uxueko santutegi-gotorlekura bisita gidatuak egiteko zerbitzu bat abiaraz dezan, obrak egiten diren bitartean.**

*VIANAKO PRINTZEA ERAKUNDEA-KULTURA ETA TURISMO BATZORDEAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuko Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Batzordeak, 2009ko martxoaren 24an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Uxueko santutegi-gotorlekura bisita gidatuak egiteko zerbitzu bat abiaraz dezan, obrak egiten diren bitartean". Horren jatorria da Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkeztutako mozio bat, 2009ko martxoaren 6ko 16. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratua.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2009ko martxoaren 30ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

**Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Uxueko santutegi-gotorlekura bisita gidatuak egiteko zerbitzu bat abiaraz dezan, obrak egiten diren bitartean.**

1.- Nafarroako Gobernuak eta PSN-PSOEkin sinatutako Nafarroako Kultur Ondareari buruzko Lehen Hirurteko Planaren 6. idatz-zatiak honela dio:

"Zabalkuntza eta bisiten programa:

Esku-hartzeek, garrantzitsuak direnean, zabalkuntza-programa bat izan beharko dute, horien funtsezko osagai gisa. Normalean material idatzi eta ikus-entzunezkoen bidez jardungo da.

Esku-hartzeak dirauen bitartean, herritarrentzako bisita-programa bat jarriko da abian, ondusunaren interesak eta ezaugarriek ahalbidetzen badute.

Arreta berezia eskainiko zaie ikasleei eta hirugarren adinekoei."

2.- Uxueko eliza-gotorlekua aipatu planean aurreikusitako jardueren barruan dagoenez, eta kontuan hartuta, zioen azalpenean islatuta geratu denez, herri horrek dituen ezaugarri bereziak, Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du lehenbailehen bete dezan 6. artikuluan aurreikusitakoa eta ondo jarduerak abian jar ditzan:

Egiten ari den jardueraren zabalkuntza-programa.

Bisita-programa globala, herritarrentzat irekia, obrak irauten duten bitartean.

Ikasleentzako eta hirugarren adinekoentzako programa berezia.

